



Izenburua	Gureaz Blai! Euskaldunak aktibatzeko irratsaioa
Egilea	Info7 irratia
Data	2013/01/16

aurkibidea

1. Info7 irratia	3
2. Euskaldunak aktibatzeko helburua	4
2.1 Estres linguistikoa	4
3. EMUN	4
3.1 TELP	5
4. Gureaz Blai! Saio berri baten jaiotza	5
4.1 Saioa atalez atal	5
4.2 Hainbat adibide	6
4.3 Lan-dinamika	7
4.4 Saioaren hedapena	7
5. Balorazioa	8

1. Info7 irratia

Info7 irratia duela 7 urte sortu zen, Aztibegia elkarteak sustatutako egitasmoari esker. Urteekin, eta herritarren zein herri sektoreen babesarekin bilakatu da errealitate. Gaur egun, internet bidez zabaltzen dugu seinalea, eta FM bidez ere gero eta zabalpen handiagoa dugu.

Info7 irratia informazioan bereiztutako komunikabidea da. Informazio-zerbitzu zabalak eta analisiak dira programazioaren ardatza, eta horretarako lan-talde profesional bat dihardu egunero lanean.

Info7 irratia irratia nazionala da. Euskal Herrian gertatzen dena jakinarazi eta horren irakurketa zein analisia egitea dugu helburu. Munduan zehar gertatzen dena ere, Euskal Herriko ikuspuntutik lantzen da, eta ikuspegi nazional hori abiapuntu eleanitza da gure irratian. Hori dela eta, gure hizkuntza nagusia euskara da, baina gazteleraz ere zabaltzen dugu informazioa eta maila txikiagoan, baita frantsesez ere.

*Info7 irratia*ren beste ezaugarri nagusietako bat, proiektuaren izaera **herritarra** da. Irabazi asmorik gabeko komunikabide-egitasmo gisa, komunikatzeko bideak eskaini nahi dizkio herri mugimenduari. Herritarrek borondatez egindako saioek osatzen dute gure programazioa: kultura, zientzia, historia, nazioarte, musika edota kirolaren inguruko hamaika saio entzungarri ditugu gurean. Horretaz gain, jendartearentzat interesgarriak diren gaien analisiari tartea egiten diogu TALAIATIK atalean, Euskal Herriko 60 adituk hartzen dute parte. Nabarmendu ere, Aztibegia elkarteko 2000 bazkideak direla, borondate propioz, info7 aurrera ateratzeko beharrezkoa den babes ekonomikoa bermatzen digutenak.

Programazioa

Irratiaren programazioari dagokionez, gaurkotasuna eta musika dira gure zutabe nagusiak. Egun, 30 saio baino gehiago emititzen dira info7n: gaurkotasun, kultura eta musika saioak batez ere. Irratian bertan, 15 saio ekoizten dira:

Gaurkotasuna:
Kale Gorrian (gaurkotasun politikoa, astelehenetik - ostiralera 07:30-11:00)
Mundurama (nazioarte, astelehenetan hamabostero 21:00-22:00)
Kirola:
Jokoa Bai (kirol-emitzen errepassoa, astelehena 15:00-16:00)
Uhaina Bikaina (surfa, asteazkenetan hamabostero 13:00-13:30)
Kultura:
Haize Orratza (Donostiako agenda, osteguna 13:05-13:30)
Zebrabidea (magazina, egunero 16:00-18:00, Antxeta, Hala Bedi eta Tas-Tasekin ekoiztua)
Obabako Testiguak (literatura saioa, ostegunetan, hamabostero 22:00)
Memoria historikoa:

La Memoria (Astelehenetan, hamabostero 22:00)

Musika saioak:

Klasikoak, Burdinola, Gozakaizte, Bailara Ezkutuan, Kaleko Mobida, Harrobia, Xolomo Gangsta.

2. Euskaldunak aktibatzekeo helburua

Gure irrata eleanitza izan arren, euskara dugu hizkuntza nagusi; eta euskara zabaltzea zein euskal kultura sustatzea ditugu helburu. Alde horretatik, gure programazioari erreparatuta, nabaria da euskararen inguruko saio baten gabezia.

Gaur egun, apenas egiten dira euskararen inguruko irratsaiorik dialean; euskaraz bai, baina ez, ordea, gure hizkuntza ardatz nagusia den irratsaiorik. Euskadi Irratiko ELE-ALEAK saioa izan zitekeen adibide bat, euskaldun berriei zuzendua, non euskaraz zuzen aritzeko hainbat aholku ematen diren.

Baina, euskaldun berriei zuzendutako saioa baino, euskaldun orori zuzendutako saioa egin nahi genuen guk, alegia, **euskaldunak aktibatzekeo irratsaio bat**. Izan ere, nahiz eta euskararen ezagutza geroz eta handiagoa izan, erabilpenak ez du gora egin. Berriki baieztatu du hori Soziolinguistika Klusterrak. Argi dago, beraz, euskaldunak aktibatzea garrantzitsua dela oso euskararen normalkuntza prozesuan.

Baina, zergatik ez dugu euskaldunok euskara erabiltzen? Zergatik jotzen dugu erdarara?

2.1 Estres linguistikoa

Euskaldunok estres linguistikoa pairatzen dugu. Euskaraz egin edo ez erabaki beharrean gabiltza uneoro, parean dugunak ulertuko gaituen ardurati, horixe da estres linguistikoa. Hizkuntza bakarria dakienak ez du zalantzarik; eta dakien hizkuntza hizkuntzarik boteretsuena bada, ez du izaten berea erabiltzeko zilegitasunaz dudarik. Ez du izaten estres linguistikorik.

Zenbatetan gertatu zaizu denda, erakunde edo beste edozein tokitara joan eta euskaraz hitz egiten hastean, beste pertsonak euskararik ez dakiela esan eta deseroso sentitzea? Edo alderantziz, norbaitekin gazteleraz edo frantsesez hitz egiten hasi eta euskaraz dakiela ondoren konturatzea?

Tamalez, hori gertatzen zaigu euskal hiztunei. Erdaldunen aitzinean, gure hizkuntza baztertzen dugu. Jarrera hori aldatzea da Euskal Herri euskaldun bat bermatzeko giltza. Baina nola aldatu jarrera hau?

3. EMUN

EMUN Lana Euskalduntzeko kooperatiba da. 80 profesional inguruk osatutako lantaldea da EMUNen aktiborik garrantzitsuena. Lantalde **dinamikoa, gaur egungoa, profesionala, hurbila eta konprometitua**. Gizartearen hainbat beharrei erantzuteko eta bereziki euskara garatzen laguntzeko kalitatezko aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen dizkie enpresei, administrazioari eta bestelako erakundeiei.

Berrikuntza eta etengabeko prestakuntzan oinarrituz, bezeroei egokitutako kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditu. Horri esker, lanaren eremuan urteetan metatutako ezagutza handia eta metodologia eraginkorra izatea lortu dugu EMUNen.

Apustu strategiaren eta azken urteetako etengabeko hazkundearen ondorioz, sektorean erreferentzia garrantzitsu bihurtu da EMUN. Ezaugarri horiek, zerbitzuen fakturazioaren bilakaerarekin batera, proiektuaren dimentsio eta gaitasunaren erakusle dira.

Arrasaten, Andoainen, Berriozarren eta Derion daude EMUNeko egoitzak, nagusiena Arrasaten.

3.1 TELP

Gaur egun hainbat dira EMUNek eskaintzen dituen zerbitzuak: Hizkuntza, kultura eta immigrazio zerbitzuak, prestakuntza eta parte hartzea. Zerbitzu horien artean dago TELP ikastaroa.

Jatorri katalana duen metodoa da (Taller d'Espai Lingüístic Personal), eta honen helburua hiztunen aktibazioa da. Euskaldunen kasuan, gaztelerari eta frantsesari aurre egin eta euskaraz aritzea.

Estres linguistikoari aurre egiteko hainbat teknika eskaintzen ditu TELP metodoak. Hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko **baliabideak** eskaintzen ditu, ohitura eta esperientzia propioei arreta berezia jarritz. Izan ere, ingurukoen hizkuntz ohiturak euskalduntzeko, lehenik norberarenak aztertu eta zuzendu beharko dira. Finean, norberaren esku dago euskaraz aritzea eta bizitzea.

4. Gureaz Blai! Irratsaio baten jaiotza

Behin gure saioaren helburuak finkatuta, edukien gaineko aholkularitzaren beharra azalera zen. EMUN kooperatibak zerbitzu mota horietan adituak diren heinean, haiekin jarri ginen harremanetan. Elkarlanean saio bat egitea proposatu genien: info7ren gain baliabide teknikoak eta kazetariak (saioaren gidaritza) eta EMUNen esku geratuko litzateke edukien kudeaketa. TELP ikastaroetan bildutako esperientziak baliatu nahi genituen irratsaioan modu praktiko eta didaktiko batean egiteko.

Behin edukiak bermatuta, finantziario eta babesaren lortzea zen gure helburua, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundira jo genuen. Berehala erakutsi zuten saioarekiko interesa. Elkarlanean oinarrituta, horrela sortu zen **Gureaz Blai!** irratsaioa.

4.1 Saioa atalez atal

Nekane Zinkunegi kazetariak (info7) eta Ainhua Lasa euskara teknikariak (EMUN) gidatzen dute Gureaz Blai! saioa. Asteroko maiztasuna duen ordu erdiko saioa da eta euskaldunak aktibatzea du helburu. Hona saioaren azalpena atalez atal.

Sarrera:

Saioari ekiteko euskararekin zer ikusia duen gaurkotasunezko albisteren bat, iritzi artikuluren bat, edota bestelako ekimenen bati aipamena egiten da. Saioari berari ere gaurkotasuna emateko, eta bide batez, instituzioek, euskara elkarteek edota bestelako erakundeek euskararen inguruan egiten dituzten ekimenak, edota hartzen dituzten erabakiak entzungarri jartzeko.

Nola entzun hala erantzun:

Lehen zatian TELP tailerretan ateratako gertaerak abiapuntutzat hartuta egiten diren hausnarketekin sustatu nahi da euskaraz hitz egiteko jarrera. Hau da, EMUNeko teknikariek eskainitako TELP tailerretan parte hartu dutenen esperientziekin (arrakastatsuak, hizkuntza erasoak...), ulerterrazak eta "sinbolikoak" diren muntaia bat egiten da saio bakoitzeko. Muntaia horretan, oso ohikoa izan daitekeen egoera bat antzezten da, elkarriketa formatuan. Hala, lehen pertsona kontatzen dira gertaera horiek, entzulea identifikatuta sentitzea ahalbidetuz.

Ondoren, saioko esatariaren eta EMUNeko teknikariaren arteko tertulian, gertaera horren elementuak aztertzen dira. Entzundako muntaiatxoan zer gertatu den azaltzen dute, euskaldunon konplexuak eta aurreiritziak zeintzuk diren azaldu. Aipatu gertaera arrakastaren erakusle bada, bertako euskal hiztunaren portaera eredugarritzat jotzen dela eta entzuleei hala jokatzeko gonbitea luzatzen zaio. Aldiz, gertaera hizkuntza eraso bat izan bada, edo bertako euskal hiztuna frustrazio sentipenarekin geratu bada, gertaera zehatz horretan eta antzekoetan zilegi litzatekeen portaera eredugarria, edo zilegi liratekeen portaera eredugarriak proposatzen dira.

Egin kontu:

Bigarren atal honetan, berriz, aholkuak edo egunerokotasunean euskaraz bizitzeko baliagarri izan daitezkeen aukerak eskuragarri jartzen dira. Batzuetan, saioaren gidariak arduratzen dira aholkuaren inguruko azalpenak emateaz; baina gehienetan, beste gonbidatu bat elkarriketatzen da (ia beti telefonoz) aipatuko den aholkua lekukotza zuzenago emateko batetik, eta beste ahots bat tartekatzen aukera eskaintzen duelako bestetik.

4.2. Hainbat adibide

Data	NOLA ENTZUN HALA ERANTZUN	Landutako edukiak	EGIN KONTU!
2012ko urriaren 23a	"Tú, siendo euskaldun, serás traductora o algo de eso, ¿no?"	<ul style="list-style-type: none"> - Erasoak bideratzeko babes estrategiak - Aurreiritziak landu - emozioak nola kudeatu - Erantzuna operazionalizatu 	<p>GARBIÑE PETRIATI</p> <p>Hizkuntz Eskubideen Behatokiko salaketez hitz egin digu</p>
2012ko azaroaren 6a	<p>Guraso ez euskaldunak eta seme euskalduna sendagilearen itxaron gelan daude. Haurra euskarazko esku orri bat itzultzen ari zaie, eta ez du hitz bat ezagutzen.</p> <p>Gurasoetako batek erizainari galdetu dio: -¿Qué quiere decir "eskirol"? Es que nuestro hijo no conoce la palabra...</p> <p>-Bah, es que en euskera hay un montón de palabras que no existen, les ponen "k"s y ya está</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eraso euskarari - Gutxiespena - Galdetzaileari ez zaio erantzun, ez du euskara ez dakienik esan... - Zein ondorio du ez erantzuteak. - Eta zein erantzuteak? - Zer irabaz dezakegu erantzunda? - Zein sentimendu nahi dugu guretzako? - Erantzun egokia izateko: - Argi izan zer esan nahi dugun - NOLA esan nahi dugun - Zein sentimendu dugun, eta zein sentimendutatik erantzun nahi dugun. 	<p>JABIER AGIRRE</p> <p>Familia mediku euskaldunak eskatu ahal izateko, Bagerak (Donostiako euskaltzaleen elkarte) eta OEEk (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) eginiko "Euskaraz osasuntsuago" kanpaina azaldu du</p>

4.3 Lan dinamika

Gureaz Blai! saioaren emisio guztiak aurrez grabatuak dira. Saioaren gidariak euren kabuz biltzen dira Donostiako irratia-estudioan. Astero, egiten dituzte bilerak EMUNeko teknikariak eta Info7 irratiko teknikariak, eta emailaz ere komunikatzen dira, noski.

EMUNeko teknikaria arduratzen da edukietaz, horretarako TELP tailerretan landutako gertaeren bilduma egingo du, eta egokiena hautatu, saioan lantzeko. Egoera hori zergatik gertatzen den, eta hori ekiditeko zein aurre egiteko hainbat aholku prestatuko ditu euskara teknikariak. Bestalde, Egin Kontu! Ataleko proposamenak zein gonbidatuak lotzea bere ardura izanen da.

Info7ko kazetariaren esku dago EMUNek proposatutako edukiak ordenatzea, eta borobiltzea, baita horiei gaurkotatzea ematea, hori baita irratia xarma. Info7ko teknikaria arduratzen da baliabide tekniko guztietaz eta baita muntaia orokorraz ere.

Nabarmendu gaiak aukeratzeko orduan, EMUNek proposatutakoaz gain, bestelako proposamenak ere ongi etorriak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzak ere egiten ditu bere gai proposamenak, eskaera zein gomendioak. Entzuleak ere baditu hainbat bide bere kezka, galdera zein proposamena luzatzeko: telefonoz zein internetez.

4.4 Saioaren hedapena

Asteroko maiztasuna du Gureaz Blai! saioak, ostegunean eguerdiko ordubatean emititzen da, eta egun berean, iluntzeko bederatzietan errepikatu. Horretaz gain, Arrosa sarean (Euskal Herriko irratia libre, komunitario eta udal irratien sarea) ere hedatzen da, eta Euskal Herriko hainbat irratik ere emititzen dute, besteak beste: Antxeta, Hala Bedi edota Oiartzun irratian.

Horretaz gain, Info7ren webgunean bertan ere zintzilikatzen dugu, eta gauza bera egiten du EMUNek bere atari digitalean. Gainera, Euskal Herriko Euskaraz-eko edota Sustatuko kideek ere aipamena egin izan diote irratia-irratia, eta entzungarri ere jarri izan dute beren webguneetan. Gainerakoan, twitter eta facebook bidez zabaltzen dugu.

Orain arteko emisioak kontuan izanda, Euskararen Egunean, abenduaren 3an, egindako irratia-irratia berezia dago nabarmentzeko artean. Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gaztezulok elkarlanean antolatutako "Ika-Mizka" ekimenaren jarraipena egin zuten, Ibaetako Campuseko Carlos Santamaria Zentrotik.

5. Balorazioa

Gureaz Blai! 20 saio emititu dira dagoeneko, eta hainbat izan dira landu diren gaiak. Orokorrean balorazio oso positiboa egin dugu saioaren ekoizpenean parte hartzen dugunok. Inongo erreferentziarik gabe horrelako saio bat lortzea erronka bat zen, baina gorabeherak gaindituz lortu dugu Gureaz Blai! erreferentzi bihurtzea eta ikasturte hasieran (harrera ona eduki du euskalgintza esparruan) eta ezarritako helburuak, hein handi batean, betetzea lortu dugu.

Hala ere, etorkizunera begira hainbat aldaketa planteatu ditugu saioa hobetzeko askoz:

Sarrerako zatia, gaurkotasuna ematea helburua duena, “isolatua”edo geratu daitekeela baloratzen da, saioaren gainerako edukiarekin lotura gutxi xamar duela, alegia. Sarreran lantzen diren gaurkotasunezko gaiak interesa badutelako, baina saioan ez direlako sakontzen. Sarrera hori saioan integratu beharko litzateke nolabait. Agian, saioaren ohiko bi atalak laburtu eta gaurkotasun gaiei denbora gehixeago eskain dakieke.

Hausnarketarako abiapuntua jartzen duten muntaiatxoak oso egokiak dira, gaia kokatzen eta irudikatzen laguntzen dutelako. Saioaren hedapenerako ere baliagarriak izan daitezkeen tresnak azaltzen dira. Ahal dela, gonbidatu bat elkarriketatzen da hori egiteko, tresnen inguruan azalpen zuzenagoa eskain dezakeelako, eta bide batez hirugarren ahots bat tartekatzeko. Hau, oso baikortzat jotzen da. Edozein eratarik, saio hau Euskal herri osoan entzun daitekeela kontuan izanda, atal honetan eskaintzen diren aholkuak Gipuzkoara edo EAE-ra mugatzeko beldurra daukagu. Honen aurrean, denok konprometitu gara Ipar Euskal Herrian zein Nafarroan euskalgintzan dabilen jendea harrapatzeke, eta orekatua izateke.

Partaideak: Nekane Jauregi Gipuzkoako Foru Aldunditik, Ainhoa Lasa eta Oihana Jausoro EMUNetik; Xabi Abasolo eta Nekane Zinkunegi Info7tik.

